

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

529

AGINDUA, 2023ko urtarrilaren 20koa, Hezkuntzako sailburuarena, Loiuako udalerriko (Bizkaia) «Padre Andrés de Urdaneta» Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren baimena aldatzeko dena.

Loiuako udalerriko (Bizkaia) «Padre Andrés de Urdaneta» Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titularra den San Agustín Ordenako Kongregazioaren legezko ordezkariak (Padres Agustinos) ikastetxe horren titulartasuna aldatzeko baimena eskatu du. Aztertu dugu eskabide hori.

Espediente hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera izapidetu da, indarreko araudiak eskatzen duen dokumentazioa erantsi zaio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek horren berri eman dute.

Arau hauek hartu dira kontuan: Hezkuntzarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa, unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzko apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua aldatzen duen otsailaren 12ko 131/2010 Errege Dekretua eta gai horretan aplikatzekoak diren indarreko gainerako legeak. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Loiuako (Bizkaia) «Padre Andrés de Urdaneta» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titulartasuna aldatzeko baimena ematea. Orain arte, Congregación Orden de San Agustín (Padres Agustinos) erakundeak izan du ikastetxearen titulartasuna; aurreantzean, «Provincia de San Juan de Sahagún de la Orden de San Agustín» erakundeak izango du titulartasuna, eta aitortu zaion ikastetxeari dagozkion betebeharrak eta eskubideetan subrogatuta geratuko da.

Bigarrena.– Titulartasun-aldaketa Hezkuntza Saileko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen erre-gistroan inskribatuko da, eta ez du eraginik izango ikastetxearen ohiko funtzionamenduan.

Hirugarrena.– Ikastetxea erregistroko datu hauekin inskribatuko da:

Kode zenbakiak: 014849 (EAE) eta 48003692 (unibertsala).

Izen generikoa: Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatua.

Izen espezifikoak: «Padre Andrés de Urdaneta»

Titularra: «Provincia de San Juan de Sahagún de la Orden de San Agustín»

Helbidea: Lauroeta, 6.

Udalerrria: Loiu.

Lurralde historikoa: Bizkaia.

Baimendutako irakaskuntzak:

– Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 12 unitate, 300 ikaspostuko edukierarekin (25 ikaspostuko edukierakoa bakoitza).

– Lehen Hezkuntza: 36 unitate, 900 ikaspostuko edukierakoa (25 ikaspostuko edukierakoa bakoitza).

– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 20 unitate, 600 ikaspostu edukierarekin (30 ikaspostuko edukierakoa bakoitza).

– Batxilergoa: «Zientziak eta Teknologia» eta «Giza eta Gizarte Zientziak» modalitateak. 12 unitate, 420 ikaspostu edukierarekin (35 ikaspostuko edukierakoa bakoitza).

– Hezkuntza Berezia:

- 3 gela ireki.
- Gela egonkor bat.

Laugarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 39.3 artikularen arabera, agindu honek 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bosgarrena.– Ikastetxearen titularra indarrean dagoen araudia betetzera behartuta dago, ikaspostu-kopuruari, ekipamenduari, titulazio akademikoari, irakasleen hizkuntza-eskakizunari eta indarrean dagoen eta aplikagarri den gainerako legeriari dagokienez, bai eta dagokion aldaketa eskatzera ere, legezko ordezkariaren bitartez, erregistroko edozein datu aldatu behar denean. Bestela, emandako baimena baliogabetu egingo litzateke.

Seigarrena.– Zentroak martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa bete behar du, bai eta indarrean dagoen legerian adierazten diren higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna ikastetxeko erakunde titularri dagokio.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 20a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.